

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-04-06 / 560. ZENBAKIA / 14. URTEA

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Santakruzak, maiatzaren 2tik 6ra

Maiatzaren lehenean herri-krosa antolatuko du Zumeatarra elkarteak, baina jaien hasierako txupinazoa maiatzaren 2an izango da / 16

**Edukiontzi grisaren ezarpena Andoainen, hiru auzuneetako erabiltzaileen zalantza orokorrak** / 5

**Apirila eta ekaina bitarteko ekitaldien sarrerak erosteko aukera zabalik, Basteron** / 14



### Turisten kabia

Maite Alkain Urnietako HK10 hoteleko gerenteari elkarrizketa / 2-3

ANDONI URBISTONDO

## euskara bada errenta

**ERRENTA  
AITORPEN  
EUSKARAZ**

APIRILAREN  
6TIK AURRERA  
AUTOLIKIDAZIOA  
ONARTZERAKOAN,  
SAKATU EUSKARAREN  
AUKERA



Informazio gehiago:

<http://euskara.buruntzaldea.eus>

Albisteak elkarbanatu eta opariak eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani /

Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil

UDAL EUSKARA BATZORDEAK



**Andoni Urbistondo URNIETA**

Ia-ia A-15 autobidearekin batera, urnietarroei ezaguna egin zaigun eraikina altxa zuten Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren alboan: HK10 hotela. Bere izenak dioen bezala, Donostiatik 10 kilometrorra egotea da bere amu eman-korrena, baina ez bakarria: enpresa bilerak, sagardotegietako jendea, kirol klubak..., bezero asko eta ezberdinak erakartzen ditu. 2012-2013an urte zailak ezagutu ostean, abiada hartu eta sendotzen ari da. Maite Alkain da hoteleko gerentea (Donostia, 40 urte), eta negozioa gidatzeaz bat, urnietarregana gehiago hurbiltzea da esku artean daukan erronkarik potoloena.

**Zenbat urte daramatzazu HK10 hoteleko kudeatzaile jardunean?**

Hotelak bost urte eta erdi ditu, eta nik urtebete gutxiago daramat gerente lanean. Ez nintzen hasieratik egon.

**Eta, zein balantze egiten duzu?**

Gogorra da, baina edozein negozioiko gerente jarduna bezalaxe. Batez ere hasiera izan zen zaila. Pixkanaka zure lanak fruituak ematen dituela ikusten duzu, eta kemena irabazi, lanean jarraitzeko. Nire lanean oso garrantzitsua da pertsonen gestioa. Arazoetan, baina baita satisfazioetan ere. Niretzat langileak gustura egotea funtsezkoa da, bezeroak atetik sartzen direnean langilea gustura dagoela sumatu behar duelako, beti aurpegi ona eman. Eta ez da erraza: ordutegiak gogorrek dira, hotela urte osoko egun guztietan baitago irekia, 24 orduz eguneroko. Geroz eta zailagoa da asteburuetan edo gauez lanean ari nahi duen jendea topatzea, eta daudenak motibatzea ere ez da erraza. 20 bat langile gaude, eta oso pozik nago. Beraiengatik ez balitz izango, hotela ez litzateke martxan egongo. Langileak ezinbesteko piezak dira, eta ni orkestrako beste pieza soil bat naiz, kontzertua ona izaten laguntzen duena.

**Nolakoa da zure egunerokoa?**

11 eta 8 urteko bi ume ditut, eta haiek ikastolara eramanez ondoren etortzen naiz, goizeko 09:00ak aldera. Bulegoan beti dago zer konpondu, zer atenditu. Posta elektronikoz egiten dut lan batez ere, taldeen erreserbak eta nire ardura dira. Orain fibra optikoarekin borrokan gabilta, hotelean eta industrigunean momentuz ez daukagulako, eta



Maite Alkain hoteleko gerentea, joan zen astean HK10 hoteleko harreran lankide dituen Maria eta Zuriñerekin batera. AIURRI

# “Hotela orkestra baten parekoa da; pieza asko ondo lotu behar dira”

**MAITE ALKAIN URNIETAKO HK10 HOTELEKO GERENTEA**

Seigarren urtea betetzera doa hotela, eta ia bost Maite Alkain ardura postuetan dagoenetik. Hotela bere tokitxoan egiten ari da, eta baikor dira etorkizunari begira

badakizu, egun, Wifi ona eta azkarra eskaintzen ez baduzu, jai duzu bezeroak erakartzeko. **Zer moduz doa negozioa?**

Ondo. 2016a oso ona izan zen, Donostia Europako Kultura Hiriburua izan zelako, eta guk, neurri batean, Donostiak hartzen ez duen, edo hartu ezin duen bezeroa hartzen dugulako. 2017a ere txukuna izan zen, ez aurrekoa bezain ona. Kezkatuta gaude orain, Donostian hurrengo urteetan 2.000 ohe gehiagoko eskaintza egin nahi dutelako.

Apartamentu turistikoaren kontuak ere arduratzen gaitu. Arduratu, diot, ez bainago aurka. Araututa egotea nahi dut. Ni ere erabiltzailea naiz. Hotel batek sekulako arau mordoak bete behar ditu, hainbat tramite osatu..., ba apartamentuek ere antzera egitea eskatzen dut.

**Betetze datu bat eskatuko banizu?** %70 ingurukoa esango nuke, batez beste.

**52 gela dituzue, ez da datu txarra.** Gehiago nahi nuke, jakina, baina dena ez da betetzea.

**Zenbat ordaindu behar da, HK10 hotelean lo egiteko?**

Aldatzen da prezioa, goi-denboraldia, edo behe-denboraldia izan, baita logelen arabera ere, baina orokorrean, 60 eta 100 euro artean gela bikoitza.

**Nolakoa da hoteleraren etortzen den bezeroa?**

Sagardotegietako bezero asko etortzen dira, apirila bitarte. Larunbat eguerdian etorri, eta igande goizean joaten dena. Talde asko, ezkongabeen despedidak... Urrik ekainera bitarte

enpresetako bezeroei esker egiten dugu aurrera. Gero eta gehiago etortzen dira, zorionez, ekipamendu ona dugulako haientzat.

**Autorik gabe datorrenari ere mesede egiten dio, garraio publikoak, tarte txikian Donostian zaudelako.**

Bai, hori ere egia da. Atzerritarra, edo Donostia ezagutzen ez duena ez da autoz joango Donostiara. Guk trenean joateko gomendioa ematen diegu, autoarekin badaude ere, autoa geltokian utzita. Bestela autobusean. A-15 autobidea gertu edukitzeak ere mesede handia egin digu.

**Esan duzu, Donostiako eskaintzarekin asetzen ez den jende dezentetortzen dela...**

Bai, hala da. Batez ere uztaile eta abuztuan etortzen diren turistak. Donostian ohe guztiak agortzen dira udan, edo akaso garestiegi da, bezero jakin batenzat, eta hiriko kanpoaldera etortzea erabakitzen dute.

**Kirol klubak hartzen espezialistak bilakatu zarete.**

Bai. Hasieran izotz-hockeyko klubekin hasi ginen. Ez dira asko, baina ahoz ahokoari esker, klub bereko beste kirol taldeek jakin dute eurentzat baldintza egokiak eskaintzen ditugula: saskibaloia, eskubaloia... Mese de handia egiten digute Gipuzkoako klubek, kanpoko taldea hona datorrenean, hemengoari galdetzen diotelako non hartu dezaketen ostatu, eta gure erreferentzia ematen diete. Iaz Madrileko talde pilo bat etorri ziren: Navalcarnero, Majadahonda... 2. B mailakoak.

**Lehen Mailako talderik ez duzue hartu, momentuz.**

Ez, ze euren 'katxe'-a handia da, eta bidaiaren bat egiten dutenean ohitura bitxiak dituzte: lauzpabost egun blokeatzeko eskatzen dute, badaezpada, ondoren gau bakarria pasatzeko. Jatetxean ere euren bakarrik egon nahi izaten dute... Gurea 200 logelako hotela balitz, onartuko genuke, baina ezin dugu ostaturik eskaini baldintza horietan.

**Nongo jendea etortzen da gehien?**

Katalunia eta Madrildik, zalan-tzarik gabe. Zaragozako jendea ere bai, gertutasunagatik. Sagardotegi garaian bizkaitarrak, eta atzerritik, ba frantziar asko. Ingelesak eta alemaniarrek ere. **Ze mezu uzten dizkizute bezeroek?** Wifia hobetzeko!!! Oso hotel atsegina dela, logelak oso erosoa, gosaria ere ona dela...



Marce tabernaria. AIURRI

## Taldearen garrantzia



Nico zerbitzaria. AIURRI

### Zein da, zure ustez, HK10 hotelera etortzeko arrazoi nagusia?

Sukaldea. Orain, hotel askotan, joera logela eta gosaria bakarrik ematea da, kudeatzeko askoz errazagoa delako. Hoteletan jatekoa jartzea minbiziaren paretak dela diote, baina gu kontrara goaz. Janari ona eskain-

tzeko erronka hartu genuen, hotela independentea eta jatorri familiarrekoa delako. Hotelaren jabeek beti izan dute sukalde onarekiko zaletasuna, gustua, tradizioa, eta horrek jarraipena izan du. Kirolarien aldetik eskertza mezu asko jasotzen ditugu. Egia da haien janariak ez daukala konplikazio handirik, nagusiki pasta, arroza, oilaskobularkiak eta beste jaten dutelako, baina ezberdina da halamoduz egindako pasta edo arroza eskaintzea, edo landutakoa. Hainbeste bidaiatzen duen jendeak eskertzen du janari goxoa eskaintzea.

### Urnietan katalogazio handiena daukan hotela da HK10. Ze ekarpen egin dio hotelak Urnietari? Urnietako herritarrek ba al dute hotelaren berri?

Ba agian Salesiar ikastetxeko aldaparengatik da, baina ematen du badagoela halako horma bat herria eta hotelaren artean... Hotelaz gain, kafetegia eta jatekoa ere badugu, baina urnietarrak baino, Andoaingo jende gehiago bertaratzen dela esango nuke. Autokritika egin behar dugu, komunikazioan ez baigabiltza fin. Musika zuzenean jartzen dugu ostiraletan, sare sozialak, kartelak jarri... baina, ezin. Semeei entzunda jakin dut, jendeak zera galdetzen duela: 'baina hor jendea ibiltzen al da?'. Ekonomikoki, Urnietan aportazio handia egiten dugula esango nuke.

### Herriarekiko urruntasun hori murrizteko modurik sumatzen al duzu?

Benoa, publizitatearekin, edo aktibitate jakin batzuk babestuz, saiatzen gara. Baina bost urte bakarrik daramatzagu, eta hori

ere eragozpen handia da. Urteak aurrera egin ahala, herrian gero eta gehiago integratuko garela uste dut. Begira Oialumeren adibidea... Gu baino urrunago daude, baina arrakasta handia dute. Arrazoia? Ezagunagoak dira. Baina tira, 40-50 bat menu ematen ari gara egunero, 13 euroko salneurrian, eta ea ba, urnietarrak kilometro erdi ibili eta guregana ere etortzen diren. Irudipena daukat jendeak ez dakiela menua ematen dugunik... Hotelek askotan halako beldurra sor dezakete, eta lau izar baditu gehiago: 'Buf, lau izar, astindu ederra emango didate...', eta ez da hala.

### Nola ikusten duzu etorkizuna?

Egunaren arabera... Donostiako 2000 oheen kontuak arduratzen nau, Lasarte-Orian ere beste hotel bat eraiki nahi dute... Egoera ekonomikoa dezente hobetu da azken bi urteetan. 2012an, hotela ireki genuenean, krisi betean geunden. Gaur poztasun gehiago sumatzen da, enpresatko bezeroak-eta gorantz doaz. Bezero batzuk esaten digute, nolatan altxa genuen halako hotel puska, industria poligono batean, eta lau izarrekoa. Denbora arrazoia ematen ari zaigu, lau izarrekoa izanda nahiko prezio erakargarriak eskaintzen ari garelako. Hiri handietako bezeroek ere mendi ingurunean gaudelako eskerrak ematen dizkigute (barrez). Kafetegian inguruko baserriar edo langileak, eta jantzi garestiak daramatzaten enpresa-gizon dirudunak elkartzen dira, eta horrek harro sentiarazten nau. Jende guztia-erentzat irekita dagoen hotela da gurea.

## Kirol taldeen gustuko hotela



UCI PRO Tour taldeko Sky taldeko kideak Hotelean izan dira. HK10

**Txirrindularitza** Team Sky, Cannondale eta nazioarte mailako beste talde askok Urnietan hartzen dute ostatu batez ere Euskal Herriko itzulian (jokoan da orain) eta Donostiako Klasikan. Bereziki, hoteleko janari eskaintza kirolari profesionalen gustukoa delako.



"Arrano hegalaria", Tongako errugbi selekzioa Donostian izan zenean.

**Errugbia** Tongako selekzioaren etorrerak sekulako arrabotsa sortu zuen Urnietan, atsedean garaian herrian barrena ibili baitziren. Duten fisikoarekin (Bataz beste, 1.90eko altuera eta 120 kg-ko pisua) jendearen arreta erraz piztu zuten.



Javi, Ido, Martin eta Amaia sukaldeko lankideak Maiterekin batera. AIURRI



Sevilla FC taldeko gaztetxoak hoteleko jantokian. HK10

**Futbola** 2B mailako talde profesionalak, gazte mailako taldeak edota Donosti Cup txapelketako taldeak bezero estimatuak dira HK10 hotelean. Urteen poderioz, ahoz ahokoaren bitartez lekutxo bat egin du hotelak futbolaren merkatuan.

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

## Apirilak 14

1936ko kolpe militar faxistak Andoainen zapaldu zituen herritarrak gogoratzeko ekitaldi publiko berria antolatuko dugu datorren larunbatean, Mirandaola pasealekuan. 2005eko lehen ekitaldi hura bezain premiazkoa izango da aurtengoa. Inoiz ez dagoelako soberan frankismoaren biktimak maite ditugula adieraztea. Zeukaten guztia eman zutelako askatasunaren alde, eta trukean, bazterkeria jasan zutelako 40 urteko diktadurapean eta baita geroztik ere demokrazian.

Frankismoaren aurkako oroimen historikoa ez da historiaurrea, zenbaiti hala iruditu arren. Geure oraina baldintzatu duen atala da, egungo errealitatea ulertzeko giltzarria. Geure iragan hurbilarekin lotutako "kontakizun" famatuaren parteetakoa da, azken batean.

Ingurumari zehatz batean datorkigu aurtengo ekitaldia. Berriki, Andoaingo udalbatzak aho batez onetsi du frankismoaren aurkako Argentinako kereilan pertsonatzea. Oroituz, Andoainen elkarteak hartu du 1936-1977 epean Andoainen gertatutako giza eskubideen bortxaketa kasuak biltzeko zeregina. Aurrera doa egitasmoa, eta egiari zor, harridurak ez du mugarik. Artean, nahiko ezagunak genituen 1936ko gertakizunak. Oraingoan, 60 eta 70eko hamarkadatan Andoaingo antifrankisten testigantza pertsonalekin egiten ari gara topo. Makina bat biografia urratuak, Estatu frankistak eragindako minaren eraginez.

Kasu horientzako argitasuna eta justizia nahi du Argentinako kereilak. Baina 1977ko Amnistiaren legearekin ari dira trabatzen udalerrriak epaitegietan aurkezten ari diren salaketak. Hain

zuzen, berriki, PPK, PSOEek eta Ciudadanosek ezetz esan diote lege hori indargabetzeari, Espainiako Kongresuan.

Besteak beste, Gasteizko bost langileren hilketentzat justizia eskatzen duen *Martxoak 3* elkarteak jaso du danbatekoa, Espainiako justiziaren aldetik. Hain zuzen, Andoaingo

ekitaldiak elkarte horretako kideak izango ditu gonbidatu berezitat. Eta aldi berean, Musika Banda Errepublikanoak Lluís Llach *Campanades a morts* abestia eskainiko du lehenbiziko aldiz, bere urteroko kontzertuan. Horrenbestez, *Goiztirian* eskulturaren aurrean bilduko gara biktimak, biktimen senideak, horien lagunak, Banda Errepublikanoak eta *Oroituz*-eko kideak, eta orohar, Andoaingo herritar ugari.

## POSTONTZIA

## Gipuzkoako Foru Aldundiari

## MURRIZKETARIK EZ PLATAFORMA

- Gipuzkoako Foru Aldundiak pasa den urteko abuztuan argitaratu zuen Buruntzaldearako autobus zerbitzuei zuzendutako aurreproiektua. Bertan dakizueenez, murrizketa nabarmenak proposatzen ziren. Hau onartezintzat joaz, 4000 alegazio inguru sartu ziren eta 7000 sinadura bildu. Ezin ahantzi ere, gai honen harira herritarrek egindako hainbat agerraldi eta mobilizazio.
- Bitarte honetan egunak aurrera joan dira, eta non gelditu dira Aldundiak alegazioei burutu beharreko erantzunak? Zertan dago aurreproiektu/proiektuaren egoera? Zergatik halako opakotasuna? Non dago



hauteskunde kanpainetan ahoan darabilten kudeaketa gardena? Gure egunerokoan eragin zuzena duen gai honen inguruan, herritarrok ez al dugu eskubiderik jakiteko zertan den istorio hau?

- Aurreproiektua onargarria ez den bezala, Aldundiaren jarrera ere onartezina da. Beste behin ere herritarroi bizkar emanez eta gure iritzia kontuan hartu gabe, hainbat proiektu erabaki

eta aurrera atera nahi dira. Inposaketaz inposaketa jarraitzen dute eta adibideak ez dira falta.

Enplazamendu zuzena egiten diogu beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiari:

- Utz dezala bertan behera aurreproiektua.
- Instituzio publiko bezala, lehenetsi dezala herritarron ongizatea. Berma dezala gutxienez egun garraibide publikoek eskaintzen duten zerbitzua eta ez dadila murrizketarik egon.
- Alboratu ditzala ikuspuntu ekonomizista soilak eta jar dezala helburu nagusi gisa jendarteari eskaintzen zaion zerbitzua eta haren kalitatea.

## POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ  
ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:  
ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:  
EUSKO JAIERAREN GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: 2017 Bitkarn  
BABESLEAK: BABESLEAK  
Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## PROTAGONISTA

# “Ondo bereizten hasita, ez da errefusa asko sortzen”

YOANA GARCIA TOLOSALDEA MANKOMUNITATEKO HEZITZAILEA

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN Martxoaren 26tik 28ra, Tolosaldea Mankomunitateko teknikaria argibideak ematen aritu zen errefusarako edukiontzi berria ipini duten Andoaingo hiru auzuneetan. **Olagainen, Alejandro Calongen eta Sorabillan indarrean jarri da errefusa bereizteko sistema berria. Zein da, zehazki, funtzionamendua?**

Astelehenetik igandera lau aldiz ireki ahal izango da errefusa jasotzen duen edukiontzi gris berria; horretarako organikoarentzat erabiltzen dugun txartel berdina erabiliz.

Organikoaren edukiontzia, aldiz, egunero zabaldu daiteke. Errefusa gutxiago sortzen da, bereziki, materia organikoa bereizten hasi garenetik. Errefusaren edukiontzia, beraz, astean lau alditan zabaldu daiteke.

Salbuespenak izango dira, haurren eta adinekoen zaintzara bideratutako kasuetan. Bi kasu horietan, fardelak bota ahal izateko,



Martxoaren 26tik 28ra argibideak eskaini zituen Andoaingo hiru auzuneetan. AIURRI

asteko egun guztietan zabaltzeko aukera eskainiko zaie.

**Hiru auzuneetan informazioa ematen aritu zaren egunetan, orokorrean zer adierazi dizute bizilagunek?**

Galdera ohikoenak bi izan dira: Ea poltsa berezirik erabili behar ote den errefusa botatzeko; edota edukiontzia zabaltzeko egun zehatzik ba ote dagoen. Poltsen kasuan ez da poltsa berezirik erabili

behar. Denda askotan ematen dituzten poltsak aprobetxa daitezke, lasai asko. Irekitze egunei dagokionez, herritar bakoitzak astean lau aldiz nahi duenean ireki ahal izango du.

**Edukiontzi berriarekin, zein da joera berria soberakinak sailkatzeko garaian?**

Ontzi arinak biltzeko edukiontzi horia da bolumen gehiena duena. Pisutsuena, berriz, organikoarena da. Horietan sortzen dugu zabor gehien. Gainerakoan, ez da errefusa asko sortzen. Garbiketan sortzen duguna, higiene pertsonalerako erabiltzen duguna (toallitak, belarriko kotoi-txotzak...), zigarro filtroak, hautsitako plater edo edalontziak, xurgagailu poltsa bat...

**Lehen egun hauetan zein da txip sistemaren kalitatea? Organikoa bereizteko edukiontzietan akatsak izan direlako...**

Hasiera honetan gustura gaude, baina abiatzea besterik ez dugu egin. Ikusiko da hilabate barru. Orduan aterako baititugu lehen ondorioak: jasotako errefusa kopurua, itxiturekin izan daitezkeen arazoak..., baina oraingoz gustura gaude.

Proba pilotoa da, hiru auzoetan sei hilabeteko iraupena izango duena.


## HAU ERE BADUGU!

## Pikabea-Arizmendi desafioa



Aiurrik aurreko astekarian desafioaren berri eman zuen. Gogoan izan dezagun, datorren apirilaren 21erako Ereñotzuko Rosario Pikabeak eta Andoaingo Jon Arizmendik apustua hitzartu dute. Aizkoran eta korrika arituko dira nor baino nor, Galarreta pilotalekuaren ondoko Jauregi jatetxearen zelaian. Aiurrik bideoa eskegi du sareetan eta bat baino gehiago izan dira herrikideari animoak emateko idatzi dutenak. FB sarean esaterako, "Aupa Jon!", edota "Jon txapeldun" irakur daiteke. Erabiltzaile askok partekatu dute albistea.

## Aiurrik zozketaturiko 2 sarrera



Aiurrik lankidetzak eskaini ohi die Pausoka, Iñistorra, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Super H edota Hurria-Sahara elkarteak. Nagusiki, euren ekimenen sustapena egiten da astekariko orrialdeetan eta webgunean. Joan zen martxoaren 25ean Basteron bertso saioa antolatu zuen Hurria-Sahara Andoaingo elkarteak, eta Aiurriren bitartez bi sarrera zozketatu ziren. Parte hartzaileen artean irabazlea Ane Amondarain andoaindarra izan zen. Argazkian irabazlea ageri da, zegozkion bi sarrerak eskuan dituela.

## DATUA

## Prezipitazioak

Urteko lehen hiru hilabeteak euritsua izan da, eta herritar askok duen sentsazio hori datuetan erraz aldera daiteke.

Imanol Fernandez @MeteoAndoain eguraldi adituak azken urteotako datuak helarazi dizkio Aiurri, eta prezipitazioak hurrenez hurren hauek izan dira: 2018an 781 mm, 2017an 522,3 mm eta 2016an 676,3 mm. Bigarren datu esanguratsua ere helarazi digu, 2017ko urritik 2018ko martxoaren 31ra bitarteko prezipitazioen batura 1.402 mm izan dela. Atzean geratzen ari den negua, beraz, euritsua izan da.

## GORA ETA BEHERA



## Parkea zikin-zikin uzten duten herrikideak

Leizaur parkean gazteak bildu ohi dira, eta aspaldikoa da haietako batzuk duten jokabide zatarra. Lurrean, noiznahi, latak, janari zatiak, papera edota plastikoa aurki daitezke. Udal garbitzaileak izaten dira, oster, plaza txukun utzi behar izaten dutenak. Plazan soberakinak botatzeko edukiontziak izanik, zaborrontzira botatzea ez da ezer kostatzen. Keinu txikia da, eta oso erraza.



# IKUSBERA

HAUR ALDIZKARIA

Harpidedun  
izatearen  
abantailak



Itzala



Esaera zaharrak



Puzleak



Labirintoa



Mezu gordea



Eskulanak



Ibilbide luzeko hainbat partaide 2016ko edizioan, Euskalduna mendigoizale elkarteko egoitzan. AIURRI

# 'Andoaingo ibilaldia', Euskaldunaren eskutik

Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien zirkuituaren baitan, Euskalduna mendigoizale elkarteak eta Euskal Mendizale Federazioak 'Andoaingo ibilbidea' eguna antolatu dute. Apirilaren 15ean hiru ibilbide ezberdinen artean aukeratu ahal izango da

## Erredakzioa ANDOAIN

Hiru ibilbide eskainiko dituzte aurtengo edizioan. Andoaingo eta inguruko familiei begira, 10 kilometroko ibilbide laburra antolatu dute Belkoain eta Aduna ingurutik igaroko dena. Adunako kontrolgunean jatekoa eta edatekoa eskainiko zaie parte hartzaileei.

Mendizaleei begira, beste bi ibilbide antolatu dituzte. Motza izenekoa 21 kilometrokoa da eta ibilbidean zehar Aduna, Zizurkil Goia, Zarateko Benta eta Belkoain zeharkatuko dituzte. Parte hartzaileei hamaiketako Zarateko Bentan eskainiko die.

Ibilbide luzea 42 kilometrokoa da eta Aiztondo bailara zeharkatuko du (Aduna, Zizurkil Goia, Asteasu, Larraul, Alkiza, Erniozabal, Ernio, Gazume, Zelatun, Zarateko Benta, Belkoain). Kontrol guneak Alkizan, Zelatun eta Zarateko Bentan ipiniko dituzte.

Izen ematea zabalik dago.

## Apirilaren 15ean, Andoainen barrena

### Ibilbideak

- 07:00 Martxa luzea: Hasiera Ondarreta ikastetxetik. 5:30 eta 11:00 ordu arteko iraupeneko zeharkaldia. 42 Km.
- 08:00 Martxa motza: Hasiera Ondarreta ikastetxetik. 21 Km.
- 09:00 Martxa familiarra: Hasiera Ondarreta ikastetxetik. 10 Km.

### Kontrol postua

- 12:30-18:00 Ibilaldiaren bukaerako kontrol postuaren ordutegia. 12:30ean irekiko dute, eta 18:00tan itxi. Ordutegi horretatik kanpo iristen dena kontrolez kanpo geratuko da.
- Parte hartzaileek ibilaldian zehar jarritako kontrol postu guztietatik igaro behar dute.

### Jana eta edaria

- Ibilaldian zehar egongo diren hiru kontrol guneetan fruta eta ura eskainiko dute. Ibilaldiaren amaieran ere luntxa eskainiko dute, Ondarreta ikastetxean.

### Dutxa, aldagela

- Bi zerbitzu horiek Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian eskainiko dituzte, ibilaldiaren amaieran.

### Prezioa

- Aldez aurretik zirkuitua.com webgunean izena ematen duenarentzat, 8 euro. Egun berean, 10 euro.

## Egunean eguneko albisteak sarean



Hurria Sahara bertso saioa



Errefusa bereizteko ekimena



Kataluniarekin elkartasuna



Pentsiodunen bilkurak

# Eskaintza interesgarriak udaberriko outletean

Zenbait dendek kalera atera zituzten euren produktu batzuk, beherapen handiak eskainiz. Eguraldia lagun izan ez bazen ere, gerturatu zirenek mauka bikainak izan zituzten eskura



**ITURBE** Oinetakoak erosteko aukera izan zen Iturbe dendan martxoaren 23an antolatu zen udaberriko outlet-ean. AIURRI



**IZASKUN MENDIZABAL, ORMENDI KIROLAK** Kirol arropa erosteko aukera bikaina eskaini zuten, egun osoan zehar. AIURRI



**OLATZ LARREA, MAINDI OPTIKA** Eguzkia ateratzeko desiratzen dauden herritar askok, eguzkitako betaurrekoak erosteko aprobeztatu zuten Zumea kalean. AIURRI



**GEMA ARRATIBEL, AMANTEGI** Barruko arropan mauka ederrak eskaini zituzten Kale Nagusiko Amantegi dendan. AIURRI



**MANOLI PALACIN, GLOSS** Arropa eta osagarriak jarri zituen Gloss dendak, Zumea kalean. AIURRI



**JOSU GOROSTIDI, GOROSTIDI** Garbiketa produktuak erdi prezioan eskaini zituzten Gorostiditarrek. AIURRI



**ALICIA ALTUNA, ALICE** Goikoplazan kokatutako Alice dendak arropan egin zituen beherapenak. AIURRI



**MARIPI HERCE, XARE** Udaberrian sartu berriren oinetakoak erosteko aukera ederra izan zen Xare oinetako dendan. AIURRI



**MARIA JESUS OTEGI, GAMER** Makillajea eta kremak erosteko tartea ere egon zen Kale Nagusian. AIURRI





Pentsiodunen elkarretaratzea Goikoplazan, martxoaren 26an. AIURRI

# Goikoplazan hitzordua, datorren astelehenean

Pentsio duinen alde asteak daramatzate protestan, Goikoplazan. Aste Santuko astelehenean atsedean hartu eta gero, apirilaren 9rako elkarretaratze berria iragarri dute. Ohi bezala, eguerdiko 12:00etatik aurrera udaletxearen aurrealdean

## Xabier Lasa ANDOAIN

Pentsio duinen aldeko protesta ekimenak astebez eten dira, Aste Santua tarteko, baina datorren astelehenean aurrera jarraituko dute Goikoplazan astero-astero antolatzen dituzten bilkura isiletan. Ekimena partaide gutxirekin abiatu bazen ere, asteen poderioz Goikoplazara jende gehiago hurbiltzen hasi da.

## Pentsioen inguruko mozioa martxoko Udal batzarraldian

Gipuzkoako jubilatuen eta pentsiodunen Duintasuna elkarteak bost puntuko mozioa aurkeztu zuen martxoaren 22ko Udal ba-

tzarraldian. Elkarteko kide den Xabier Etxeberriak irakurri zuen mozioa. Besteak beste, mozioak eskatzen zuen %0,25eko igoera "ziztrina" arbuizatzea; Espainiako Gobernuari txirotasun egoerari aurre egiteko 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko eskatzea eta hori gauzatu bitartean Eusko Jaurlaritzak pentsiodun guztien pentsioa osatzea; eta Babes eta Gizarte Segurantzaren eskumenak Euskadira ekartzea eskatzea.

Mozio horren aurrean, EAJ-PNVk bederatzi puntu zituen mozio alternatiboa aurkeztu zuen. Espainiako Gobernuari zuzentzen zitzaizkion eskaera gehienak: besteak beste, pen-

tsioen eros-ahalmena bermatzea, Gizarte Segurantza sistemarako gastu desegokiak ezabatzea, iruzurra eta enplegu irregularraren kontrako borroka areagotzea, eta pentsioen kudeaketa arloko eskuduntza transferitzeko tramiteak hastea.

Lehen mozioa onartu zen, gehiengo osoz, EH-Bildu, Gane-mos, Irabazi eta atxiki gabeko zinegotziaren aldeko botoekin. PSE-EEk abstentziora jo zuen, eta EAJ-PNVk kontrakoa botoa eman zuen.

Adierazpenak adierazpen, pentsiodunak ez daude etsitzeko prest. Irtenbiderik ezean, astelehenero Goikoplazan biltzen jarraituko dute.



"Ibili Andoain" ekimena Goikoplazatik abiatzen da, astero. AIURRI

## Asteazkenero 'Ibili Andoain', maiatzaren 30era arte

Aste Santua igarota, adinekoen jarduera fisikoa sustatzeko ekimena apirilaren 11n berrabiaraziko da

## Erredakzioa ANDOAIN

Adinekoen artean jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak jarraitzea izango du, datorren asteazkenetik aurrera. Andoaingo Udalak sustatu duen ekimena herri eragile askoren laguntzarekin burutzen ari da. Laguntzaile modura ari baitira Santa

Kruz jubilatuen elkarteak, Caritas, Bertxin jubilatuen elkarteak, Zuena emakumeen taldea, Hurria-Sahara taldea eta Euskalduna mendigoizale taldea.

Aste Santua igarota, asteazkenero eta etenik gabe, ibilaldiak antolatuko dituzte maiatzaren 30era arte.



Taldean egiten den jarduera da, sekula ez bakarrik. AIURRI

## Kataluniarekin elkartasuna

Carles Puigdemont Kataluniako Presidentaren atxiloketa salatu eta elkartasuna adierazteko, joan zen martxoaren 27an Andoaingo Gure Esku Dago taldeak elkarretaratzea deitu zuen Goikoplazan. Egundik batetik bestera antolatu zuten deialdia, eta hitzordura ehun lagun hurbildu ziren. Elkarretaratzea isila izan zen, txalo artean amaitu zena.



# Sahara gogoan, bertso sorta ederra

Basteroko ekitaldi aretoa bete egin zen Hurria-Saharak urtero antolatzen duen bertso saioaz gozatzeko. Oholtza gainean bikain aritu ziren Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran, Unai Muñoa, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Colina



Belokiren esanetara kantuan aritu ziren Iguaran, Colina, Muñoa, Gaztelumendi, Agirre eta Mendiluze. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Egoera ugariri egin behar izan zioten aurre bertsolariak, eta makina bat pertsonen larrutan sartuta kantatu behar izan zuten.

## Oihana Iguaran, Saharako haurren paperean

*Ikusiko zenituzten kalean kartelak 130 harrera familia behar direla adieraziz. Oihana, zu, Saharako haurra zara. Zergatik etorri nahi duzu hona?* Hiru senide gara etxean beti ezkaude batera. bi anai zarrak joan izan dira Euskal Herriko partera. Gure bizitzan berdetasun hau gure ametsen parte da. Nik ere nahi det behingoagatik basamortutik atera, orain artean ez baitet izan ume izateko aukera.

Nere ilusio bat egina det anai batek kontatuta. Nola pizinan ibil daitekeen bat bihurtuta txalupa, ta ur freskoa irentsi leiken grifo batetik zurrupa. Gogoa daukat hara iristeko nere ametsak hartuta, ze handik bueltan etortzen dira bi zentzutan indartuta.

Ja bederatzi urte beteta unea heldu zait sikira, eta horren zain jarria nago begiratuz urrutira. Nere anaien hitz soil batetik antzematen det ditzira. Izena eman det ta emateko izango al dute desira. Nik segiko det nere hareazko erloju honi begira.

## Aitor Mendiluze, bertsolariaren etorkizunaz

*Pasa zen txapelketa; bukatu ziren hamar eta hamalau mila entzuleko saioak; bukatu ziren bertsolarietaz mintzo ziren iritzi artikulu eta telebistako saioak. Non da bertsolarietza egun? Non-dik jango du bertsolarietza hurrengo lau urteetan?* Milaka lagun final haundian edo pantailei begira, batzuk pentsatuz ai! betirako, bertan egongo balira! Baina aparra pasata ura badoa bere tokira. "Bertsolarietza non egongo den" galderak entzuten dira. Gaur eta orain hemen dago ta gure bidea hori da.

Lau urtean behin izaten baitu halako aparraldia.

Duela gutxi azkena eta aparra pasa da ia. Herririk herri, plazarik plaza, pizten da orain argia. Hori da gure ibilbidea badaukagu non abia. Plaza txikiek egiten dute bertsolarietza haundia.

Beraz herritan eta auzotan segiko du martxa bera, urte askotan jarraitu duen bidearen arabera. Baina lengoan geratu gabe egin dezala hobera. Lau urte azkar pasatzen dira, testigua da norbera. Berriz helduko da olatua, ta igo egingo gera.

## Hurria Sahararen eskertza

"Aita Manuel Larramendi ikastolako LH 6. mailako ikasleak zoriondu nahi ditugu, martxoaren 23an antolatu zuten azoka solidarioan jasotako dirua Hurria Saharari eman ziotelako. Eskerrik asko azoka antolatu duzen ikasle guztiei eta ekimenean parte hartu duzen gainontzeko ikasle, irakasle eta familiei. Era berean, mila esker urtero bezala Sahararen aldeko bertso saiora gerturatu zaretzen guztioi".

## Ekitaldi aretoa jendez gainezka



Ekitaldi aretoa bertsozalez bete zen. AIURRI

**Ikusmina** Basteroko saioan bertsozalea eta bertsolaria elkarren artean oso gertu izaten dira. Bertsoaz gozatzeko plaza ona da, beraz. Aurtengoak ikusmin handia piztu zuen, jendetza batu baitzen.



Olazabal 'Opi' Hurria Sahara elkarteko kidea. AIURRI

**Eskertza** Saharako haurrak hartuko dituzten familiak behar direla gogoratu zuen Olazabalek. Eskertza adierazi zien elkartasunez jokatzeko duten andoaindarrei, Basterora hurbildutako bertsozaleei eta saioa aurrera ateratzen ezinbestekoak diren bertsolariari.



Ikasleek elkarteko kideei 505 euroko txeketa eman zieten. AIURRI

**Elkartasuna** Azoka solidarioa egin zuten Aita Larramendi ikastolako ikasleek. Bizkotxoak, pintxoak eta eskumuturrekoak salduz, lortutako 505 euro eman zizkieten Andoaingo elkarteari. Elkarteak, bere aldetik, keinu hori biziki eskertu zuen.

# Argazki erakusketaz gozatzeko azken egunak

“Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak” izenburuko argazki erakusketa apirilaren 14ra bitarte ikusi ahal izango da, Basteroko erakusketa gelan. Zabaldu zutenetik, erakusketak ikusmin handia piztu du andoaindar askoren artean



Kaleberria eta Aingurasutegi edo Ancoras kaleak dira argazki sorta bateko protagonista nagusiak. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo emakumeen lanbideen inguruko argazkiak eta informazioa biltzen du Basteroko erakusketak. XX. mendean zehar Andoainean izan ziren zenbait denda eta taberna, eta horien ardura zeramaten emakume ezagunak ditu aztergai, eta ikusle gehienen oroitzapenak piztea lortzen ari da.

Izan ere, makina bat istorio txiki bezain hunkigarri biltzea lortu du Itxaso Mendiluze erakusketaren antolatzaileak, Andoaingo Udalaren laguntzarekin. Herriko eta auzoko bizilagunen topagune izaten ziren negozio horiek, gertu-gertuko tratua eskaini eta bizitza soziala sustatzen zutenak.

## Egun Aingurasutegi, Ancoras iraganean

Elkarren ondoan dauden Aingurasutegi eta Kaleberriko komertzioak eta euren dendariak dira istorio horietako protagonistak. Hain zuzen, Consuelo, Benigna eta Maria Luisa Garatek, hiru ahizpek, Kale Berrian zegoen Exkerranea tabernaren ardura eramaten zuten. Andoaingo hainbat lekukoren

arabera, aparteko taberna behar zuten izan; barrua egurrezko egiturazkoa, barra handia eta pianoa eta guzti zeukana. Erakusketan irakur daitekeenez, “famatu zen bermutak eta garagardo botilak kolpez irekitzeko ohitura. Baserritarren topagune ere izaten zen, bertan jasotzen baitzuten Tolosara enkargatutako orturako landarea”.

Martina Albizu da erakusketak azpimarratzen duen beste emakume dendari horietako bat. Bere familiak Kale Berrian zeukan sagardotegian hasi zen lanean, eta gero, denetariko denda ireki zuen Kale Berrian bertan, parean, Aingurasutegi kaleko kantoian. Gerora, bere alaba Manoli Orbegozok segida eman zion dendari. Egiari zor, Manoli, sagardotegian oso gaztetan hasia zen jendeaurreko zereginetan.

## San Cristobal taberna, Jauregi drogeria

Aingurasutegi kalea aztergai hartuta, San Cristobal taberna eta Jauregi drogeria azpimarratzen dira argazki bilduman. San Cristobal taberna 1969an ireki zen eta Vicenta Nogales izan

zen bere arduraduna. Igandetako meza ostean bertan zerbitzatzaren ziren txibiak jendeak oso gogoan dituela adierazten da erakusketan.

Drogeria, berriz, Sotera Aristegirik ireki zuen eta bera izan zen bertako saltzailea urtetan; halako batean, bere alaba Fani Jauregik hartu zion lekukoa, eta honek gaur egun irekita mantentzen du denda. “Amak irakatsitakoak eta berak amari begira ikasitakoak tentuz betetzen ditu. Aurpegi txarrik ez da bertan eta hizketaldi xamurrak dendaren bizitzaren lekuko dira”, hala dio argazki baten azpiko testuak Fani dendari gisa deskribatzerakoan. Andoainean, egun, belaunaldiz belaunaldi familiaren baitan transmititu ostean bizirik dagoen denda bakanetakoa izango da Fanirena.

**MAKINA BAT ISTORIO TXIKI BEZAIN HUNKIGARRI BILTZEA LORTU DU ITXASO MENDILUZEK**



Maddalen Kortajarenak bigarren saria lortu du "Etiopia" ikus-entzunezkoarekin.

## Arregi eta Kortajarena diaporama lehiaketan sarituta

Urnietako Udalak diaporama lehiaketako irabazleen berri eman du, lehen bi sarituen izenak iragarritz


### Erredakzioa URNIETA

Lehiaketara aurkeztutako lan guztietatik, Udalak jendaurrean eskaintzeko bost hautatu zituen: Andoni Urbistondoren "Bistare Bistare", Ane Arregiren "Made in Taiwan", Ane Arozenaren "Erasmus Mexikon", Alain Motoren "Riding south Asia" eta

Maddalen Kortajarenaren "Etiopia". Martxoaren 20tik 23ra Saroben eskaini eta gero, epaimahaiaren saria Ane Arregirentzat izan da. 300 euroko jaso du. Bigarren saria, ikusleek erabakitakoa, Maddalen Kortajarenak jaso du, azken honek 200 euroko saria eskuratu.

## Izaro, ekainean Basteron

Kantariak 'Eason' izeneko CD berria aurkeztu du, eta lehen emanaldietan arrakasta lortzen ari da. Donostiako Victoria Eugeniako sarrerak, esaterako, berehala agortu ziren. Ekainaren 15ean Andoainean izango da, eta dagoeneko sarrerak salgai daude. Sarrerarik gabe geratu nahi ez badute, behintzat, azkar ibil daitezela Izaroren zaleak.



IZAROMUSIKA.COM



**KARTELDEGIA: ESKUBALOIA, SASKIBALOIA**

**ESKUBALOIA**

**SENIOR MAILA, MUTILAK**

**EMAITZAK**

Urnieta-Leizaran **28-25**

**SAILKAPENA**

- 1 Legazpi **29 puntu**
- 2 Eibar **28 puntu**
- 3 Egia **28 puntu**
- 4 Pulpo **27 puntu**
- 5 Urnieta **26 puntu**
- 11 Leizaran **6 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDAK**

**11:00** Leizaran-Ormaiztegi / Iq, 8

**11:30** Egia-Urnieta / Iq, 8

**SENIOR MAILA, NESKAK**

**EMAITZAK 1-2 MULTZOAK**

Irauli-Urnieta (1. multzoa) **24-10**

Leizaran-Zeppelin (2. multzoa) **27-30**

**SAILKAPENA (1. MULTZOA)**

- 1 Urdaibai **8 puntu**
- 2 San Adrian **5 puntu**
- 3 Irauli **4 puntu**
- 6 Urnieta **2 puntu**

**SAILKAPENA (2. MULTZOA)**

- 1 Leizaran **6 puntu**
- 2 Ibarra **6 puntu**
- 3 Zeppelin **6 puntu**
- 4 Aiala B **4 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDAK**

**12:15** Ibaizabal-Urnieta / Iq, 8

- Urduliz-Leizaran / Lar, 7

**JUBENIL MAILA, MUTILAK**

**GIPUZKOAKO TROFEOA**

**EMAITZAK**

Urnieta **Atsedena**

Ordizia-Leizaran **24-25**

**SAILKAPENA**

1 Bidasoa Irun **10 puntu**

2 Urnieta **8 puntu**

3 Hettich **6 puntu**

6 Leizaran **2 puntu**

**JUBENIL MAILA, NESKAK**

**GIPUZKOAKO TROFEOA**

**EMAITZA**

Leizaran-Ereintza **20-26**

**SAILKAPENA**

1 Ereintza **11 puntu**

2 Aiala **9 puntu**

3 Leizaran **7 puntu**

**KADETE MAILA, MUTILAK**

**FORU ALDUNDIKO TORNEOA**

**EMAITZAK**

Leizaran Horia-Egia 3 **19-22**

**KADETE MAILA, NESKAK**

**FORU ALDUNDIKO TORNEOA**

**EMAITZAK**

Bidasoa Irun A-Urnieta **22-11**

Leizaran Urdina-Aiala B **23-21**

**SAILKAPENA**

1 Bidasoa Irun A **10 puntu**

2 Leizaran Urdina **8 puntu**

3 Urnieta **8 puntu**

4 Aiala B **7 puntu**

**SASKIBALOIA**

**SENIOR MAILA**

**EMAITZA**

Ganbara-Lizeo **43-55**

**KADETE MAILA**


Erroibide-Ganbara **41-33**

# Jokin Lizeaga eta Jon Ugalde fin ari dira


**LASTERKETAK** Jokin Lizeagak aurtengo helburu nagusizat du Zegama-Aizkorri mendi lasterketa, maiatzeko azken asteburuan jokatu dena. Bide onean doa. Jon Ugalde andoaindarra ere fin dabil, Talaia bidean laugarren sailkatuta



Jokin Lizeaga. FORTUNAKE



Jon Ugalde. BIDASOAKO HITZA



Mikel Olano. BIDASOAKO HITZA

**Erredakzioa** ESKUALDEA

Fortuna taldeak 2011n antolatu zuen, lehen aldiz Donostia eta Hondarribia arteko mendi lasterketa. Zortzi edizio denera, beraz, eta horietatik hirutan urnietarra garaile izan da. Sasoiko dago Lizeaga, ea zorrea aldeko duen aurtengo Zegama-Aizkorri mendi lasterketan.

**TALAI BIDEA 2018**

URNIETA	
1	2:14:18 Jokin Lizeaga
100	2:56:23 Unai Ezeiza
145	3:04:47 Imanol Garcia
197	3:15:04 Mikel Olano
220	3:18:31 Mikel Etxezarreta
251	3:23:48 Tomax Pellejero
270	3:27:27 Ivan Haro

442	4:28:54	Ainara De Miguel
ANDOAIN		
4	2:22:35	Jon Ugalde
22	2:39:49	Ivan Pifon
115	2:59:12	Jorge Morales
304	3:31:06	Maialen Gurrutxaga
365	3:46:28	Maikel Fernandez



ANDOAINGO

## Andoaingoak errepiderako prest

**TXIRRINDULARITZA** Martxoaren 24an, Intersport Irabia taldeko Igor Arrieta nagusitu zen Deban. Andoaindarraren sailkapena honakoa izan zen: Iker Atxaga (7),

Ibai Omeñaka (42), Unai Galarza (60), Mikel Goikoetxea (78). Aste Santuko oporraldian jardunaldi bereziak egin dituzte, prestaketa sakontze aldera.



AIURRI

## Pala saioa eta adiskidantzazko bilkura Arraten

**PILOTA** Frontoiko kirol jarduerak nagusiki gizonzkoenak badira ere, Andoaingo Gazteleku pilota eskolak urteak daramatza emakumezkoen parte hartzea sustatzen. Martxoaren 24an, esaterako, Arrate pilotalekuan eskualdeko pala topa-

keta antolatu zuten. Deialdia Andoaindik harago joan zen, eta Buruntzaldeko kirolariek ere parte hartu ahal izan zuten. Pala saioa egin eta gero, parte hartzaileek adiskidantzazko afaria egin zuten.

# Zaila bai, ezinezkoa ez

**ESKUBALOIA** Lurraldeko txapelketako azken txanpan sartu dira senior mailako taldeak, eta Urnietak igoerako ligaska jokatzearekin amesten du. Leizaran taldea garaitu eta gero, azken bi partidatan irabazi beharra daukate

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Iazko denboraldia gogoangarria izan zen, eta aurtengoan ere urnietarrek horixe bera errepikatu nahiko lukete. Baina zaila dago, bi jardunaldiren faltan bosgarren sailkatuta baitaude. Azken partida etxean jokatu zuten, Leizaran taldearen aurka. Eta amesten jarraitzeko garaipen garrantzitsua lortu zuten (28-25).

Asteburu honetan sailkapenean hirugarren postuan dagoen Egia taldearen etxean jokatu behar dute. Urnietarrentzat finalaren parekoa izango da. Senior mailakoak itxaropentsu daude.



Urnietan jokatu zuten azken partida, andoaindarren aurka. UKE

## Senior mailako neskek

Igoera fasean aurkari gogorrak topatu dituzte. Gogotik saiatarren, ezin izan zuten garaipena

lortu Urdaibairen aurka. Joko ona, bai, baina baloi ugari galdu zituzten, ordea, eta horrelakoe-

tan aurkariak ez dute barkatzen. Irabaz zitekeen partida galdu zuten (19-21).

## Sei talde Andebolmania lehiaketan



Hernani eta Urnietako infantil mailako neskek, aurtengo Andebolmania txapelketan. UKE

Bosgarren urtez jarraian, Urnieta Kirol Elkartearen eskubaloia ataleko infantil, kadete eta jubenil mailako taldeak Portugal aldean

jokatzen den Andebolmania jaialdian izan dira. Urnietarrek batera Euskal Herriko, Espainiako eta Portugal aldeko

taldeak lehiari aritu dira. Oporraldia eta eskubaloia uztartuz, egonaldi atsegina izan dute.

## KARTELDEGIA: FUTBOLA

### FUTBOLA

#### PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Euskalduna-Allerru	1-0
Urnietak-Martutene	1-0

#### SAILKAPENA

1	Deusto	56 puntu
2	Allerru	54 puntu
3	Euskalduna	51 puntu
4	EAS 08	47 puntu
9	Urnietak	29 puntu

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Trintxerpe-Euskalduna / Api. 15
-	Mariño-Urnietak / Api. 15

#### ERREGIONAL MAILA, KOPA

EMAITZA	
Asoleus-Euskalduna	1-2

#### SAILKAPENA

1	Euskalduna	18 puntu
2	Mundarro	15 puntu
3	Sporting Herrera	15 puntu
6	Allerru	10 puntu
7	Asoleus	2 puntu

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Euskalduna-Allerru / Api. 15
---	------------------------------

#### IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA	
Urnietak-Intxaurdi	2-5

#### SAILKAPENA

1	Eibar	32 puntu
2	Anaitasuna	28 puntu
3	Lagun Onak	19 puntu
4	Urnietak	18 puntu

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Eibar-Urnietak / Api. 15
---	--------------------------

#### KOPA, NESKAK

EMAITZA	
Euskalduna-Allerru	1-2

#### SAILKAPENA

1	Añorga	33 puntu
2	Goierri A	28 puntu
7	Euskalduna	10 puntu

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Añorga-Euskalduna / Api. 15
---	-----------------------------

### JUBENIL MAILA, MUTILAK

EMAITZAK, IGOERAKO LIGAXKA	
Orioko-Urnietak A	2-2
Beasain-Euskalduna A	3-0

#### SAILKAPENA

1	Beasain	28 puntu
2	Euskalduna A	26 puntu
3	Urnietak A	21 puntu
4	Allerru A	18 puntu

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Urnietak A-Beasain / Api. 15
-	Euskalduna A-Beti Ona / Api. 15

#### EMAITZAK, KOPA

Euskalduna B-Idiazabal	1-0
Urnietak B	Atsedena

#### SAILKAPENA

1	Billabona	27 puntu
2	Euskalduna B	19 puntu
3	Idiazabal	15 puntu
6	Urnietak B	6 puntu

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Urnietak B-Euskalduna B / Api. 15
---	-----------------------------------

### KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZA, OHOREZKO MAILA	
Sanse-Euskalduna	3-0

#### SAILKAPENA

1	Antiguoko	65 puntu
2	Baskonia	61 puntu
3	Hernani	57 puntu
4	Ostadar	55 puntu
8	Euskalduna	37 puntu

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Euskalduna-Ostadar / Api. 15
---	------------------------------

#### EMAITZAK, KOPA

Urnietak-Martutene B (4.multzoa)	1-1
Goierri A-Euskalduna (7.multzoa)	2-2

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Euskalduna-Ordizia / Api. 15
---	------------------------------

### KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Urnietak	Atsedena

#### DATORREN JARDUNALDIA

-	Mutriku-Urnietak / Api. 15
---	----------------------------

## KARTELDEGIA: ARETO FUTBOLA

### ARETO FUTBOLA

#### SENIOR MAILA

Euskalduna-Oiartzun	1-1
---------------------	-----

#### SAILKAPENA

1	Hirukide	49 puntu
2	Tolargi	45 puntu
3	Oiartzun	39 puntu
4	Herrikide	37 puntu
5	Euskalduna	36 puntu
6	Idiazabal	35 puntu

#### ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Egarrri-Euskalduna / Lar, 14
-------	------------------------------

### ANDOINGO TXAPELKETA

#### A TALDEA, SAILKAPENA

1.	DAD Kutxa	3
2.	Keler	3
3.	Akerbeltz	1
4.	Ekhia	1
5.	Txalaka	0

#### B TALDEA, SAILKAPENA

1.	Ganbara	3
2.	Irunberri	3
3.	Pausoka	3
4.	Gorostidi	3
5.	Academia London	0

## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 5

## ANDOAIN Kultura

Apirila, maiatza eta ekaineko ikuskizunetarako sarrerak salgai ipiniko dituzte apirilaren 5etik aurrera. **Bastero.**

## URNIETA Tailerra

Sukaldaritza tailerra 2007-2012an jaiotakoentzat. **Lekaio, 11:00-13:00.**

## ANDOAIN Irteera

Irrisarri Land abentura parkera. **Gazte Lokala, 10:00. 15 euro.**

## OSTIRALA 6

## ESKUALDEA Errenta

Ogasun sailak proposamenen berri emango du. Proposamenak hilaren 16tik aurrera onartu ahal izango dira. **Gipuzkoa.eus.**

## URNIETA Tailerrak

Zirko tailerra, denentzat irekia. **San Juan plaza, 16:30-18:30.**

Lappa taldekoekin tailer praktikoa. **Gazte informazio puntua, 18:00.**

## ANDOAIN Jolasak

Jolas ezberdinen txapelketa. **Gazte Lokala, 17:00.**

## LARUNBATA 7

## ANDOAIN Irteera

Zinemara irteera. **Gazte Lokala. 8 euro.**



UROLAKOSTA

## ANDOAIN Apirila eta ekaina bitarteko programazioaren hasiera

*Txarriboda* ikuskizunarekin hasiera emango diote Basteron, kultur jardueren udaberriko hiru hileko programazioari. Ikuskizun guztietarako sarrerak apirilaren 5etik aurrera salgai ipiniko dituzte, Basteron eta internet sarean.

**Sarreraren salmenta apirilaren 5etik aurrera.**

## OSTIRALA 13

## URNIETA Tailerra

Webguneak sortzeko tailer praktikoa. **Gazte informazio puntua, 18:00.**

## URNIETA Ikus-entzunezkoak

Mendi film jaialdiko hainbat lan. **Sarobe, 19:00.**

## ANDOAIN Txarriboda

Hika teatroren ikuskizuna Urki dantza taldea, Punttuka bertso eskola eta Katramilaren parte-hartzearekin. **Bastero, 21:30. 12 euro.**

## LARUNBATA 14

## ANDOAIN Ekitaldia

1936ko Gerran fusilatu zituztenak gogoan hartuko ditu 'Oroituz, Andoainen' herri ekimenak. **Mirandaola pasealekua, 12:00.**

## IGANDEA 15

## ANDOAIN Flauta topaketa

Bergara, Loatzo eta Andoaingo flauta ikasleen bilkura. **Bastero, 12:30. Doan.**

## ZINEMA

## ANDOAIN

## BASTERO

## C'est la vie

Larunbata, 7:  
19:30; 22:00.  
Igandea, 8:  
19:30.  
Astelehena, 9:  
19:30; 22:00.

## Una familia feliz

Haurrentzat.  
Larunbata, 7:  
17:00.  
Igandea, 8:  
17:00.

## Sin rodeos

Larunbata, 14:  
19:30; 22:00.

Igandea, 15:  
19:30.  
Astelehena, 16:  
19:30; 22:00.

## Hijo de Bigfoot

Haurrentzat.  
Larunbata, 14:  
17:00. Euskaraz  
Igandea, 15:  
17:00.

## URNIETA

## SAROBE

## Trio la búsqueda del santuario sagrado

Igandea, 8: 17:00.

## Mendi film,

**hainbat lan:**  
Ostirala, 13: 19:00.

## SINOPSIAK



## Una familia feliz

**Zuz.:** Holger Tappe. **Herr.:** Alemania (2017). **Iraupena:** 96 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

## Familia zoriontsua izatea helburu

Wishbone familia ez da ohiko familia zoriontsuaren irudia. Parke tematikora joango dira,

eta sorginak munstro bihurtuko ditu. Zoriontsuak direnean izango dira berriz ere gizaki.

## C'est la vie

**Zuz.:** Olivier Nakache, Eric Toledano. **Herr.:** Frantzia (2017). **Aktoreak:** Jean-Pierre Bacri, Kévin Azaïs... **Iraupena:** 115 minutu.

## Ezkontza bateko antolakuntza

Max-ek ehundaka ezkontza antolatu ditu urteetan zehar. Oraingoan, XVIII. mendeko 'château francés' gazteluan ospatuko den luxuzko ezkontzan dabil lanean. Egoera

kontrolpetik joango zaio Max-i. Ezkontzaren antolakuntza lanak erakusten ditu filmak otordu-zerbitzuko langilearen, argazkilariaren eta Dj-aren ikuspuntutik.

Artibazaketa Kronika INSALUS

**BERTSO GUTIZIAK**

ONDOREN GUTIZIA BEREZIZ OSATUTAKO LUNTZ-AFARIA ONGI ETORRI!

23:38etan autobusa BERNABIA bueltatzeko IZENA EMAN! Oribera-kuztialdi 943 33 08 99

MAIALEN LUJANBIO AITOR SARRIEGI SARRERAK SALGAI 22€

UNAI AGIRRE AITOR MENDILUZE

HERNANI KRONIKA XIXKAL ARALAR GOZUETA AMAIA KAFETEGIA

APIRILAK 20 19:00ETAN Basque Culinary Centeren

ERRONTZU IRRINTZI IKATZA ASTIGARRAGA

Gai-jartzailea: AMAIA AGIRRE

## ZORION AGURRAK



**ANDOAIN**  
**Eneko Fernandez**  
Zorionak Eneko! 6 urte handi beteko dituzu aurten! Segi beti bezain jator eta alai, baloiari eman eta eman, Oiarzabalek bezala! Muxu handi bat. Etxekoak



**ANDOAIN**  
**Anje**  
Ongi etorri Anje! Martxoaren 25ean jaio zen etxeko txikia. Zorionak amatxo eta aitatxori, eta noski Nereri, arreba nagusia baita orain! Muxuak, etxekoak.



**ANDOAIN / ADUNA**  
**Amane eta Axel**  
Apirilaren 12an Amane eta Axelek 5 urte beteko dituzte. Zorionak eta txokolatezko muxuak! Etxekoak.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

**www.aiurri.eus**  
Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

**diseinua@aiurri.eus**  
Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, nahi duzun testua.

**Arantzibia 4-5, behea**  
Etor zaitetz bulegora, Andoinera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

**Whatsapp bidez:** 619 16 35 37

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDOAIN**

**Larunbata 7 eta igandea 8**  
ZATARAIN: Elizondo, 6.  
943 590 802. Andoin.

**URNIETA**

**Larunbata 7 eta igandea 8**  
CASTILLA: Urbietta, 7.  
943 552 941. Hernani.  
Gauetz, bi herrietan: Castilla.  
943 552 941. Hernani.

*Liburu aurkezpena*  
Patziku PERURENA

**LEITZALARREKO UNAIAK**  
1683-1771

Zezenak plazan Goizuetan eta Leitzan  
1578-2017

Eguna: 2018-04-17, asteartearekin  
Tokia: LEITZako Udaletxea. Batzarre Aretoa  
Ordua: 19:00

**ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732**  
edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- Hileta eguneari eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

**Eskelak Aiurriin: 90 euro**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



## Barkatu, Lourdes

Lourdes Iriondok euskal kulturaren utzitako herentziaren balioa kalkula ezina da. Ez Dok Amairuko kuttunena izan dut beti, urnietarra zelako akaso, baina urteak pasa ahala, eskerrak eman baino egokiago ikusten dut barkamena eskatzea. Iriondoren kantutegitik gehienetan entzun izan dudana abestia "gazte gera gazte, ta ez gaude konforme" dioena izan da. Eta barkamena eskatu behar diot Lourdesi, eta barkamena eskatu behar diogu Lourdesi.

Orain dela 15 urte jaio zen Urnietan gazte mugimenduari zerikusia izanik indarra bildu zuen azken elkarteak: Poxta Zahar. Sortu zenean Urnieta biziberritzeko konpromiso sakona hartu zuten, eta oztopo guztiei aurre eginez, elkarteak gaur egun 400 gazteko bazkaria antolatzeko gai da. 400 gazte kamiseta horiekin. Txapel arrosekin. Presoak etxeratze logoa, okupazioaren logoa, errepresioaren aurkako logoa... Non dira 400 gazte horiek herriko festak ez direnean?

Barkatu, Lourdes, gazte izateagatik.

Barkatu, Lourdes, konforme egoteagatik.

Barkatu, Lourdes, konforme ez egon arren, ezer ez egiteagatik.

## AZKENA



1977tik hona maiatzaren 3an herriko kaleak girotzen dituen "Exkerreneako bluxak" koadrilakoak izango dira aurtengo pregoilariak. AIURRI

# Konturatu orduko, Santakruzak bertan dira

Atzera zenbaketa hasita, Santakruzak iristear direla esan daiteke. Antolatzaile taldeak ia xehetasun guztiak prest ditu, eta aurrerapen modura esan daiteke aurtengo pregoia "Exkerreneako bluxak" koadrilak botako duela

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN  
Zumeatarra elkarteko hainbat lagun Santa Krutz eguna hitzordu berezizat hartzen hasi zen, duela berrogei urte inguru. Uranga tabernan elkartu, eta ospakizun ederrari hasiera eman zioten. Maite zuten Uranga taberna eta bertako Mertxe nagusia, eta hark ere etxekotzat hartzen zituen "Exkerreneako

bluxak" koadrilako kideak. Taberna itxi zuten, Mertxek erretiroa hartu zuen, eta garaiak aldatuz joan badira ere, Zumeatarrako lagun taldeak Santa Krutz eguneko ospakizunari eutsi egin dio. Egun, trikitia eta panderoarekin, kalean gora eta behera ibiltzen dira Santa Krutz egunean. Ez dira egitarauan agertzen, baina auzotar gehienek

jakin badakite maiatzaren 3ko osagaietakoa dela bluxadun koadrilaren kalejira. Oraindik orain, eguna girotzen dute.

### Txupinazoa maiatzaren 2an, arratsaldeko 19:00tan

Kale Nagusiko Zubiaurre etxetik jaiari hasiera emango diote. Txupina botata, Zumeatarrako danborrada abiatuko da.

## Jaietako hainbat hitzordu

Aurtengoaren aurrerapena:

### Maiatzak 1, asteartea

Herri krosa, Zumeatarraren eskutik.

### Maiatzak 2, asteazkena

Txupinazoa 19:00tan, segidan, Zumeatarra elkartearan danborrada.

### Maiatzak 3, osteguna

Ikurriñaren jaisiera eta txakoli dastaketa.

### Maiatzak 4, ostirala

Koadrilen eguneko bazkaria.

Kontzertua gauean: Egurra ta kitto, Koban eta pintxada feminista.

### Maiatzak 5, larunbata

Auzo bazkaria eta La Jodedera Kale Nagusian, Peña Santa Krutz taldearen danborrada eta gauean kontzertua: Rukula, Atom Rhumba eta Ingoaldeu.

### Maiatzak 6, igandea

Eguerdian sagardo dastaketa. Arratsean Irunberriren danborrada.



# TXOTX'18

### Sagardo route

943 336 811  
Astigarraga

### Mizpiradi

943 593 954  
Andoain

### Sarasola

943 690 283  
Asteasu

### Iguarte

658 435160  
Usurbil

### Larre-gain

943 555 846  
Ereñozu-Hernani

### Gaztañaga

943 591 968  
Andoain

### R. Zabala

943 690 774  
Aduna

### Petritegi

943 457 188  
Astigarraga

### Hotel K10

943 337 357  
Urnieta

**Apirila, sagardoaz gozatzeko aukera aparta**